

## Drogei jarriak

### I

Askorentzako drogen mundua mundu *undergrounda* omen, zentzu gutxiko ez dakit zenbat mila kanpainen ondoren, kontsumoa igo da, berriro mailan gora erakutsiaz nabarmen kontrol polizial ta debekuak zein efizienteak diren!



XDZ

### IV

Droga ilegal eta legalen diferentzien harira batzuk ez dira hain nabarmenak, aldatzen da perspektiba. Hark alkoholez gainezka, egin du bere festa, baina normala da, tira! Marihuana erre duena hura bai, hura *yonki* da!

### II

Arazoari muinetik heldu behar baitzaio ahal dela, merkatu beltza desegiteko nolako grina fidela. Lau gazte atxilotu, bakarren bat “satortu” ta denok pozik horrela... Merkatua hain gauza sinplea baldin balitza bezela.

### V

Zenbaitek dena satanizatzen nahiz ta baduen artea, ez al da hobe informatzea, hezitzea, gizartea? Izan ´e legeez gain, lehenago eta orain ez al da libertatea? Bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egitea?

### III

Eskariari erantzutea berez, eskaintzaren plana, baina tiketik gabe ezin da ezer ere erreklama... *Speed, estasi, koka, batxisa, tripi sorta...* kontsumitzean ze drama! Nola zen beste esaera hura... katua ta erbiana?

### VI

Produkzioa, kontsumoa ta salmentaren dinamika erregulatu beharra dago, kanbiatu politika. Herritar ta ahaldun, eztabaida dezagun, ez da hain zaila apika drogen gaineko aurreiritzi eta beldurrak utzita.